

GARA

PAPEREZKO
EDIZIOA

 13° Bilbo

 INFO7 ZUZENEAN



Kriteriodun irakurleak

EGUNEKO GAIAK | EKONOMIA | EUSKAL HERRIA | IRITZIA | KIROLAK | KULTURA | MUNDUA |

EGURALDIA | BLOGAK | ESKELAK

2018/10/17

KULTURA 

1936ko gerrak Bizkaian utzi zituen istorioak dakartza «Ekaitza urrun» lanak

Benetako gertakari historiko bati fikziozko osagarriak gehitu dizkio Joanes Urkixok bere lan berrian. Amaren familia nazionalista zuen, eta, aitarena, berriz, sozialista. Horietan oinarritu da Gabino protagonistaren familia osatzeko. Ertzaintzaren sorreran eta hasiera batean osatu zen Nazioarteko Polizian izandako gorabeherak kontatzen ditu «Ekaitza urrun» lanean. Izan ere, indar hartako buruaren aitagarriak espioitza lanak egin zituen frankistentzat.

NAGORE BELASTEGI | DONOSTIA

PUBLIZITATEA

Badago mundu bat

PUBLIZITATEA

 INPRIMATU

 BIDALI



1936ko irail eta azaro bitartean kokatzen da “Ekaitza urrun” nobela, Joanes Urkixo helduen literaturara bueltan ekarri duen liburua. 1982an idazten hasi eta 90eko hamarkadara arte eleberriak, antzerki lanak, poemak, ipuinak eta haur eta gazte literaturako lanak eman bazituen ere, etenaldia egin zuen literaturgintzan gidoilari lanetan aritzeko.

Orain nobela historiko batekin dator Erein argitaletxearen eskutik. Idazleak berak aurkezpenean azaldu zuenez, «eleberria eta historikoa da, ordena horretan». Izan ere, aspalditik kontatu nahi zuen gertaera historiko batean du oinarri lanak, baina Urkixoren helburua literatura lan bat egitea izan da, eta, horregatik, esaldi eta pertsonaia landuak eskaintzen dizkigu. «Batzuetan, lan historikoa denean, literatura aldetik barregarri edo eskas izaten da», aipatu zuen idazleak.

1936ko gerra Bizkaira iritsi zenean kokatzen da akzioa, Ertzaintzako buru Luis Ortuzarren aitagarrebak egindako espioi lanak oinarri hartuta. Gizon hura fusilatu egin zuten, traidorea izateagatik. Urkixo espioi haren ondorengo batekin dago ezkondua, eta horregatik zen garrantzitsua berarentzat istorio hau liburu batera ekartzea. Baina benetako gertaera batean oinarritzeak ez du esan nahi guztia egia denik, irakurlearentzat kontakizuna deigarriagoa izateko fikzioa ere

HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

AZKENAK

txertatu duelako.


Protagonista Gabino da, Galdakaoko familia bateko anaia gazteena. Senideen artean beste aita batena den anaia bat dago, familiarekin hazi ez arren Gabinorekin harreman estua duena. Anaia Basaurira doa lanera eta bertan komunista egiten da. Aitak bien arteko harremana begi onez ikusten ez duenez, Gabinori frontera borrokara joatea debekatzen dio eta Nazioarteko Poliziara (gero Ertzaintza bilakatuko zena) lanera bidaltzen du. Bertan, anaiak kontatutakoak bere bizipenekin konparatzen ditu, eta gerraren kontraesanez ohartzen hasten da. Tartean, familia frankista bateko neska batekin maitemintzen da.

Neutral ez, errespetuz bai

Urkixoren amaren familia nazionalista zen eta aitarena sozialista. Horietan oinarritu da protagonistaren familiako gatazka politikoa islatzeko. «Ni ez naiz neutrala, eta ez dut neutrala izan nahi nire ideologia dudalako», esan zuen idazleak eleberrian bando baten aldeko kontakizuna dagoela aitortuz. «Nola nire neutraltasun faltaz kontziente naizen, saiatu naiz pertsonaia guztiak errespetuz tratatzen», azpimarratu zuen.


Adibidez, frankistentzat espioi lanak egin zituen “gaizkilea”, eleberrian «ez da gaizkile bezala agertzen, bere arrazoiak zituelako: erlijioa, familia eta negozioak». Protagonistaren antagonista, beraz, ez da espioia, bigarren mailako pertsonaia bat baizik, gutxi agertzen den arren paper garrantzitsua duen nazi bat.

naiz: Retweeted


 **agustin goikoetxea**
@goikodeustu


Replying to @goikodeustu

La primera testigo es una trabajadora de [@DYABizkaia](#), que acudió a la calle María Díaz de Haro por un aviso de una pelea en la zona. Nadie requirió su atención y se mantuvieron a la espera. Al rato les reclamó la Ertzaintza diciendo que había una persona herida.

  6m

naiz: **naiz:**
@naiz_info

 [EN DIRECTO] Arranca la tercera sesión del juicio por la muerte de Iñigo Cabacas [naiz.eus/eu/actualidad/...](#) Lo sigue desde la sala [@goikodeustu](#)



▶ INFO

▶ IRITZIA

▶ NAIZ+

▶ AGENDA

▶ ATAL BEREZIAK

▶ ERREGISTROA

▶ EUSKAL HERRIA

▶ EDITORIALA

▶ FACEBOOK

▶ BIDALI EKITALDIA

▶ NUEVO TIEMPO

▶ HARPIDETZAK

- ▶ MUNDUA
- ▶ EKONOMIA
- ▶ KIROLAK
- ▶ KULTURA
- ▶ ARGAZKI GALERIAK
- ▶ BIDEOAK
- ▶ AUDIOAK
- ▶ EGURALDIA

- ▶ ARTIKULUAK
- ▶ TASIO
- ▶ ZUZENDARIARI
- ▶ BLOGAK

- ▶ TWITTER
- ▶ NAIZ+ BLOGAK
- ▶ GOOGLE+

- ▶ MUSIKA
- ▶ KULTURA
- ▶ HAURRAK
- ▶ AISIA
- ▶ OHAR-TAULA

- ▶ KRONOLOGIA
- ▶ DONOSTIA 2016
- ▶ ZINEMALDIA 2014
- ▶ FUTBOLA
- ▶ SASKIBALOA
- ▶ GURE ESKU DAGO
- ▶ HAUTESKUNDEAK
- ▶ SANFERMINAK

- ▶ KONTAKTUA
- ▶ PUBLIZATEA

naiz:

[HARREMANETARAKO](#)

[NOR GARA](#)

[OHIKO GALDERAK](#)

[PUBLIZATEA](#)

[LEGE OHARRA](#)

[RSS](#)